

## Kulturaz eta kirolaz berbetan

### **Edorta Jimenezek, Lutxo Egiak eta Andoni Egañak Letrak eta Futbola egitasmoan parte hartuko dute, gaur**

Athletic Club Fundazioak eta Bilboko Foru Liburutegiak Letrak eta Futbola mahi inguru sorta antolatu dute hilabete honetarako. Gaur, 19:00etan, Edorta Jimenez, Lutxo Egia eta Andoni Egaña izango dira hizlari. Otsaileko ostegunetan egingo dituzte mahai inguru guztiak, foru liburutegian.

Galder Reguera Athletic Club Fundazioko programazio arduraduna da egitasmo horren sortzailetariko bat. «Erakunde biok argi genuen kalitatezko literatur ziklo bat antolatu gura genuela, futbola literaturaren bitartez bizi daitekeela erakusten zuena».

Mahai inguru hauen helburua futbolak duen publikoa ekintza kulturaletara «erakartzea» dela dio Reguerak. Era berean, asmoa da bai futbola eta bai Athletic hausnarketa kulturalerako gai gisa aldarrikatzea. «Irakurketa eta idazketa futboletik aldarrikatzea, eta futbola bietarako gai moduan».

Aurreko astean egin zuten lehenengo saioa Hernan Casciari eta Enric Gonzalezekin. Futbolak kazetaritzarekin eta literaturarekin duen harremana aztertu zuten. Jendetza bildu zen foru liburutegian: «Jendez lepo zegoen aretoa; batzuk kanpoan geratu ziren», zehaztu du Reguerak. Hernan Casciari eta Enric Gonzalez oso ondo aritu zirela dio. Kalitate «handiko» topaketa izan zenez, pozik daude antolatzailak.

Datorren astean Aitor Lagunasek (Panenka), Eduard Sanchok (Contra argitaletxea) eta Emilio Sanchezek (Libros del K.O) parte hartuko dute mahai inguruau. Eta aurtengo ekitaldia amaitzeko, otsailaren 28an Elena Medel eta Manuel Vilas egongo dira hizlari.

Aurten laugarren aldia da antolatzen dutena. Aurreko urteetan, idazle, futbolari eta bertsolari ezagunek parte hartu dute; besteak beste: Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, David Trueba, Sergi Pamies, Jordi Punti eta Juan Villoro idazleak; Karlos Gurpegí, Andoni Iraola, Igor Gabilondo, eta Koikili Lertxundi jokalariak; Athleticeko presidente Josu Urrutia, eta Bartzelonako kirol zuzendari Andoni Zubizarreta.

### **Bertso derbia**

Otsailaren 22an Athleticens eta Realaren derbia dela eta, lehenengo bertso derbia egingo dute. Athletic Club Fundazioak, Real Sociedad Fundazioak eta BBK aretoak elkarlanean antolatu dute bertsolaritza eta futbola batzen dituen emanaldia.

Hiru bertsolari zuri-gorri eta hiru txuri-urdin ariko dira lehian. Athleticens taldean, Angel Mari Peñagarikano kapitain dutela, Jone Uria eta Ohiana Barra egongo dira. Andoni Egaña kapitainak, Amets Arzallusek eta Maialen Lujanbiok osatuko dute Realarena. Bertso derbia arratsaldeko zapietan jokatuko dute, Bilboko BBK aretoan, eta sarrera doakoa izango da.